



memoria



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

2020ko jardueraren memoria
Sareen Sarea
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala

Diseinua eta maketazioa:
Sareen Sarea, 2021.

Laguntzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

1	SAREEN SAREAREN AURKEZPENA	
	Sare bazkideak.....	5
	Ikuspegia, misioa eta balioak.....	6
	Erakundea	8

2	ZER EGIN DUGU 2020an?	
	EHSS indartzea eta dinamizatzea.....	10
	Gobernantza eta eragin proaktiboa	16
	Harreamanak eta aliantzak.....	28
	EHSSren posizio soziala	33

3	BESTE EKITALDI BATZUK	
	2020an zehar parte hartu dugun beste ekitaldi batzuk.....	38

4	KOMUNIKAZIOA	
	Sareen Sarea komunikabideetan.....	39
	Sareen Sarea sare sozialetan	40

5	KONTUAK ARGI	
	2020ko diru-sarrerak eta gastuak	41

Nor gara?

Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen elkarte da. Sorrera formala 2014ko apirilaren 8an izan bazuen ere, hura sortzeko ideia urte batzuk lehenago sortu zen, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian.

Historian, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek sakabanatuta eta atomizatuta egon izan dira. Hori dela eta, azken urteetan presentzia, aitorpena, elkarrizketarako gaitasuna eta eragin politikoa handitzen laguntzen dieten sare eta federazioetan artikulatzeko ahalegina ikus daiteke.

Sareen Sarea hainbat alorren eta lurralderen bat egitearen adierazpide agerikoena da. Euskadiko Hirugarren Sektore guztia batzeko helburuz sortu zen, eta kohesio eta parte-hartze handiagoa dituen gizarte justuago eta solidarioago baterantz aurrerapausoak emateko helburuz. Esklusiboki alderdi ekonomikora bideratuta dagoen eta pertsonen erreparatzen ez diren garapen-eredu baten aurrean kritikoagoa den gizarte bat du helburu, eta gizarte-eredu gizatiarrago baterantz aurrerapausoak emateko proposamenak eta alternatibak sortu nahi ditu kolaborazioaren bidez.

Sare bazkideak

2020an, guztira, 16 sarek osatu zuten Sareen Sarea:



Astialdi Sarea



Coordinadora de ONGD Euskadi



EAPN Euskadi



EHLABE



Elkartean



Euskal Gorrak



Euskofederpen



FEDEAFES



FEVAS



Gizatea



Harresiak Apurtuz



Hirekin



Hirukide



Lares Euskadi



ONCE



REAS Euskadi

Ikuspegioa, misioa eta balioak

Ikuspegia

Sareen Sarearen helburua hau da: gizarteak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren erreferente eta aglutinatzaile gisa ikustea, gizarte- eta politika-alorreko hainbat eragilerengan eragiteko eta haiekin hitz egiteko gai dena; gizarte justua, kohesionatua, inklusiboa, solidarioa, parekidea, parte-hartzailea eta demokratikoa eraikitzen laguntzen duena; inklusio soziala, bizi-kalitatea hobetzea eta pertsonen eskubideak efektiboki betetzea defendatzen duena; sektorearen egituraketan ekarpena egiten duena Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala indartsuagoa eta kohesionatuagoa izan dadin, betiere duen aniztasunari erreparatuta.

Misioa

Gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak berdin errespetatuko dituen, zaurgarrienei arreta berezia eskaintzen diena, eta ongizate kolektiboaren eta eraldaketa sozialaren bidez, hiritar guztien konpromiso aktiboa sustatzea. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala bateratua, sendoa eta aitortua izan dadin lan egiten dugu, eta hark gaitasuna izan dezan gizarteko eta instituzioetako eragileetan eragiteko eta haiekin elkarriketak izateko.

Balioak



Elkartasuna

Babesgabeenen eskubideen erantzukizuna.



Eraldaketa

Eraldaketa sozialarekin erantzukizuna eta konpromisoa, eskubideen aldarrikapena eta defentsa, hiritarren parte-hartze eta erantzukizun aktiboa sustatuz.





Gardentasuna

Kudeaketan erantzukizunez jokatzea; horretarako, erabakiak hartzean eta informazioa maneiatzean gardenak izatea eta erakunde-kideek, administrazio publikoek, gizarte-eragileek eta gizarteak bertara sartzeko aukera izan dezaten bermatzea.



Kooperazioa

Hirugarren sektoreko erakundeekin (eta beren artean), administrazioarekin, eta hiritarrek, hiritarren helburu komunak eta esperotako misioa betetzen direla bermatzeko.



Pluraltasuna

Sareen Sarearen baitako aniztasuna eta sektoreko aniztasuna aitortzea, eta barne-demokraziaren eta parte-hartzearen bidez beren ordezkagarritasuna bermatzea.



Independentzia

Pentsamenduan eta ideologian eta independentzia instituzionala, politikoa eta ekonomikoa, gizarte-eragileekin duen harremanean eta eraginean faktore horiek nahas ez daitezen.



Demokrazia

Erantzukizun komuna eta parte-hartze ekitatiboa eta inklusiboa sustatzea misioari eta ikuspegiari dagokionez, eta erabakiak elkarrekin hartzea kide guztiak ados dauden diskurtso, posizionamendu eta akordioak lortzeko.




Autonomia

Sare bakoitzaren errealitatearekiko autonomia eta Sareen Sarearen diskurtsoa, posizioa eta aldarrikapenekiko errespetua, interes komunen aldeko lan eginez.



Erakundea



Biltzar Nagusia

Sareen Sarearen Biltzar Nagusia erakundearen erabakitze organo gorena da. Gutxienez urtean behin elkartzen da, eta entitate bazkide guztiek osatzen dute.

Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordea, Batzar Nagusiaren xedapen eta arauak jarraikiz elkartearen interesak zuzentzen, kudeatzen eta ordezkatzeko dituen gobernu-organoa da. Entitate bazkideek bakarrik izango dute gobernu-organoa parte hartzeko aukera. Zuzendaritza Batzordea entitate bazkide guztiek osatuko dute, eta bakoitza berak aukeratu duen pertsona fisiko batek ordezkatzeko du. Gutxienez hiru hilean behin egin beharko dute bilera, jardura sozialen garapenak ahalbidetzen badu. Orain hilean behin egiten dute bilera.

Lan-batzordeak

- ➡ Komunikaziorako eta sentsibilizazio sozialerako Batzordea
- ➡ Eragin Politikotako Batzordea
- ➡ Barne Sendotzerako Batzordea
- ➡ Legegintza garatzeko Taldea
- ➡ Haurren eta Nerabeen Eskubideen Batzordea

Talde teknikoa

2020an bi pertsonak osatu dute talde teknikoa: koordinatzailea eta komunikazioa eta kudeaketan laguntzeko teknikaria.



Zer egin dugu 2020an?

2.1. Euskadiko hirugarren sektore soziala indartzea eta dinamizatzea

COVID-19a agertu izana eta haren inpaktua izan dira martxotik Zuzendaritza Batzordeak egindako hamar bileretan eta bi batzar nagusietan 2020an eragin handiena izan duten gaiak. Aurreko urteetan bezalaxe, sare barruan lan egiteko modua sendotzeko eragingarriak izan dira bilera horiek. Hala, EHSSko sareen artean elkarlana bultzatzea, irizpideak adostea eta erabakiak bizkor hartzea lortu dugu.

2020an, aurrera egin dugu barne mailako antolaketaekin, egituraketarekin eta indartzearekin (aurreko 2016-2019 Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta 2020-2023 aldirako plan berria onartzea, Zuzendaritza Batzordea ordezkatzeko, estatutuak aldatzea bileretara egokitze eta erabakiak modu telematikoa hartu ahal izateko, EHSSko erakundeetan COVID-19k izan duen inpaktuaren aurreko estrategia onartzea, Haurren eta Nerabeen Eskubideen Batzordea eratzea onartzea...).

Honako hauek dira aurten oso modu aktiboan lanean jarraitu duten **batzordeak eta lantaldeak**:

- ➡ **Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako batzordea:** hama-bost saretatik lauk osatzen dute, zazpi bilera egin dituzte eta nagusi-ki komunikazio-kanpainan eta EHSSren Egunaren prestaketan, EITBren eta sarearen arteko hitzarmenean, Covid-19arekin lotutako komuni-kazio-kanpainan eta Sareen Sarearen komunikazio-estrategian jardun dira.
- ➡ **Eragin politikorako Batzordea,** Zazpi sarek osatzen dute eta bi bilera egin ditu, hirugarren sektore sozialaren jarduerarekin lotutako gai guz-tiak lantzeko eta beste gizarte- eta politika-eragile batzuekin harrema-nak hasteko.
- ➡ **Barne Sendotzerako Batzordea,** lau sarek osatuta dago, eta zazpi bi-lera egin ditu hirugarren sektore soziala, haren egitura eta barne-kohe-sioa indartzeko. Bi bileren izaera zabala izan dela esan dezakegu EHSS-ren Plan Estrategikoa landu ahal izateko.
- ➡ **Haurren eta Nerabeen Eskubideen Batzordea** hasiera batean, As-tialdi Sareak, EAPNk, Hirukidek, Unicefek eta Sareen Sareak osatutako lantalde gisa sortu zen, baina sendotu eta 2020ko urrian batzorde gisa eratzea adostu zuten. Lantaldeak zazpi bilera egin ditu.
- ➡ **Legegintza Garatzeko Taldea** lau sarek osatuta dago, eta Kontzertu Sozialaren Dekretuaren inguruan jarraitu du lanean.
- ➡ **Gizarteratze Planaren Jarraipen Taldeak** 2020an ere lanean jarraitu du. Urtarrilean bildu zen Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Po-litiken Sailak igorritako 2020rako jardueren aurrerapenarekin lotutako proposamenen dokumentua prestatzeko.



2020-2023 Plan Estrategikoa

Laneko batzorde eta talde ugarietan egindako lanari esker, **2020-2023 Plan Estrategikoa diseinatzen** eta 2020ko Plan Operatiboan zehazten lagundu dugu.

Era berean, **EHSSren Sustapen Estrategia** hedatzen lagundu dugu eta, horren baitan, **2018-2020 Legegintzako Plana** eta 2020ko Programazioa, eta 2021erako programazioaren diseinua eta programazio horren jarraipena.

Programazio horiek eraikitzeko garaian, kontuan hartu ziren Sareen Sareak EHSSSEren jarraipeneko batzorde mistoari (hiru aldiz bildu zena) aurkeztutako zirriborroak.

PLAN ESTRATÉGICO 2020-2023 PLAN ESTRATEGIKOA



Euskal Gorraken sarrera

Sareen Sarearen Ohiko Batzar Nagusiak **Euskal Gorrak** gehitzeko eskaera onartu zuen urriaren 21ean eta, hala, onarpen-prozedura amaitutzat eman zen. Hala, sareen sareak Euskadi mailako **EHSSko 16 sare eta esparru** bildu zituen.



EHSSren balio osoa eta balio erantsia

2020an amaitu dugu **“Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Balio Totalari eta Balio Erantsiari”** buruzko balorazio tresna eraikitzeke lana. 2019ko amaieran pretestean parte hartu zuten erakundeekin egindako bileren ostean, alde batetik, enplegu arloko erakundeei eta garapenerako lankidetzarako erakundeei zuzendutako gaiak gehitu genituen tresna haien errealitatera hobeto egokitzeko asmoz.

Bestalde, azkenean, **tresnak bereizitako bi galdetegi izango ditu**: bat online, arinagoa, oinarritzko informazioa eta alderatzeko erabilgarria izan daitekeena, eta balio erantsia duena, jasotzeko. Eta bigarrena, zabalagoa, autoebaluazio sakonagoa egin nahi duten erakunde edo zerbitzuari zuzendutakoa. Pandemia dela eta, ezinezkoa izan da 2020an sektoreko erakundeen artean tresna aurkezteko eta hedatzeko hirugarren fasea egitea. 2021ean egiteko geratu da.

EHSSren barometroa

Sareen Sareako presidenteak urtarrilaren 24an **EHSSren Barometroa aurkezteko** erakunde mailako mahaian hartu zuen parte Beatriz Artolazabal sailburuarekin, Sergio Murillo diputatuarekin eta Nora Sarasola BBK-ko Gizarte Ekintzako zuzendariarekin batera. Bertan, Eusko Jaurlaritzaren lidergoarekin EHSSren Euskal Behatokia aurten abian jartzeko herri-administrazioek adostutako akordioaren berri eman zuten. Barne Sendotzerako Batzordeak Barometroaren (haren diseinuan parte hartu genuen) txostenaren zirriborroa kontrastatu zuen 2019ko abenduan. Era berean, EHSSren Liburu Zuria osatzeko datu-bilketan ere parte hartu dugu.



EHSSko erakundeetarako berrikuntza

Innobasquekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, EHSSko erakundee-tan berrikuntzari bultzada emateko proiektuan pauso irmoak eman ditugu 2020an.

EHSSko erakundeetan berrikuntzari buruzko aurretiazko diagnostikoa egi-teko 2019an Innobasquerekin bideratutako lankidetzaproiektuarekin au-rrera jarraituta, **bi tailer** egin genituen azaroaren 27an eta abenduaren 11n **gure errealitatea enpresetarako Europako estandarren tresnara egokitzeko** eta kontzeptu-esparrua diseinatzeko asmoz. Berrikuntzan es-perientziaren bat edo esperientzia handia zuten neurri eta esparru uga-ritako 25 erakunde ordezkatu zituzten beste horrenbeste lagunek hartu zuten parte. Hurrengo urratsa partekatutako diagnostiko eta estrategiatik abiatuta HSSren berrikuntza kuantifikatzea eta tresna lagungarriak garat-zea ahalbidetuko digun prozesua garatzea izango da. Bi saio horietan, gu-rekin izan da HSSko berrikuntza sozialean oinarritutako Kataluniako iSocial fundazioko zuzendaria eta Taulako zuzendari ohia, Toni Codina.

Hurrengo faseetan (2021ean egingo dira), parte hartu duten erakundeen artean eta parte hartu ez duten beste erakunde batzuen artean **tresnare-kin pilotajea** egingo da tresnaren inguruko pretesta egiteko eta, hortik abiatuta, orokortzeko. Ireki dokumentua. Azken helburua da sektorean be-rrikuntzari bultzada emateko sistema sortzea.



EHSSko azpiegitura sozialen beharrak

Sareen Sareak **“EHSSko erakundeetako azpiegitura sozialen beharrak”** izeneko txostena prestatu du. Dokumentuak sektoreko **45 erakundetako 77 proiektu** jasotzen ditu. Guztiak EHSSko sareen artean banatutako galdetegiari erantzun ziotenak dira. Horren helburua da sektoreak epe laburrera begira abian jarriko dituen edo dagoeneko abian dauden proiektu sozialak garatzeko beharrezko zerrenda hori Etxebizitza Sailak eskuragarri dituen azpiegituren eroldarekin gurutzatzea. Baina baita Sailak erakundeei azpiegiturak laga ahal izateko prozedura sistematiko bat lantzea ere. Ekintza hori EHSSko Sustapen Ekintzako 17. jardueraren baitan jasota dago.

Txostena Beatriz Artolazabal sailburuaren Sailera bidali dute eta hark, aldi berean, Etxebizitza Sailari bidali dio.

EHSSko sustapen-ekintzei buruzko txostena

Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak kontrastea egiteko elkarriketa egin zuen Sareen Sarearekin azaroan **Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko-neurriei buruzko txostenaren zirriborroaren** inguruan. Aipatutako zirriborroa sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lana da. Horixe izan da egindako lehen txostena.

Txosten horren helburua da EHSSko sareak eta erakundeak garatzeko, hobetzeko eta indartzeko sektore publikoak zein pribatuak bultzatutako neurriei buruzko informazio eguneratua biltzea. EHSSko Legean dago jasota aldizkako txosten hau prestatzea.

Abenduan, Sareen Sareak gai horren inguruan HSSEBk antolatutako mintegian hartu zuen parte. Bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzako, hiru aldundietako, Eudeleko eta Kutxabankeko hiru banku-fundazioetako ordezkariak.



Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

2.2. Gobernantza eta eragin proaktiboa

Sareen Sareak 24 kontseilu eta fororen, Estatuko eta Europako 35 plataformari buruzko informazioaren transmisioa eta trukea errazten ditu. Horietan, Euskadiko sareok ere presentzia dugu.

Gainera, Sareen Sareak laguntza eta koordinazioa eskaintzen die **Elkarri-zketa Zibilerako Mahaian** eta **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Ara-zoetarako Batzordean** (EEGAB) parte hartzen duten pertsonen eta sareen. Sareen Sareako koordinatzaileak 2020an egin ziren EZMren 3 saiotan ere parte hartu du.



EHSSren Sustapen Estrategiaren Jarraipena egiteko Batzordea edo Lantaldea hiru aldiz bildu da 2020an (Kontzertu Sozialaren dekretuko neurri espezifikoak aparte).

Aurten, pandemiaren eraginak mantsotu egin du **Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen lana**. **IV. Gizarteratze Planaren jarraipena** egiteko erakundearteko batzordea (bertako kideak gara) ez da aurten bildu arrazoi bera dela eta.



Bilboko Udaleko Hiritarren Segurtasuneko zinegotziak, Amaia Arregik, Bilboko **Udaleko Segurtasuneko Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzordean** sartzera gonbidatu gintuen elkarteen egitura eta gizarte-eragileak ordezkatzeko asmoz. Izan ere, kontuan hartu zuen gure baitan jasotzen ditugun zaurgarritasuneko profil ugariak eta toki mailan homologagarria litzatekeen erakunderik ez izatea. Pandemia lehertu aurretik, martxoaren 2an, deitutako lehen bilera (eta bakarra) hartan izan ginen.

Sareen Sareak urtarrilaren 10ean **Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratzeko IV. Planaren** jarraipena egiteko lantaldea bildu zuen **“2017-2021 IV. GIZAR-TERATZE PLAN AKTIBOA. 2020ko jardueren aurrerapena; 2019ko abendu-ko bertsioa”** dokumentuari buruz Jaurlaritzari bidali beharreko proposamenak biltzeko. Sareen Sareak urtarrilaren 14an entregatu zuen kontuan hartutakoak jasotzen zituen dokumentua.

Horrekin lotuta, Enplegua eta Gizarte Politikak Sailak **Gizarteratzeko Eus-ka-l Planaren Jarraipena egiteko I. Jardunaldi** baitako mahai-inguruan parte hartzeko bidalitako gonbidapenarekin lotuta, Sareen Sareko presidenteak baiezkoa eman zuen. Mahai-ingurua martxoaren 16rako aurrez ikusita zegoen, baina osasun-larrialdiaren deklarazioa zela eta, bertan behera geratu zen.

Sareen Sarea **Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin koordinatuta** dago, eta handik igortzen dituzte Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren jarduerarekin lotutako gai guztiak. Sareen Sareako koordinatzaileak gaiak aztertu eta sare sozialei informazioa eman zien intereseko esparruaren arabera.

Batez ere Gobernantzarekin lotuta, eta administrazio publikoetako maila guztiekin hitz eginez eta batera parte hartuz, Sarean Sarea 2018tik ari da lanean **OGP Euskadi Gobernu Irekirako Foru Erregularrean, Foro Irekian** eta **“OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planarekin lotutako” bost Konpromiso Taldeetako** bitan. Zehazki, lehen (kontuak ematea) eta hirugarren (hiritarren parte-hartzearekin lotutako ILAB) konpromiso-taldeetan hartu dugu parte beste sei gizarte-eragilerekin batera, gizarte zibil antolatua ordezkatzuz.



Pandemiak OGPko bileren dinamikan eta formatuan ere izan du eragina. Apirileko foro erregularrean bateratu ziren 2018-2020 Planeko aurrerape-
nak eta 2020-2024 Plan berriko proposamenarekin lotutako ekarpenak.
Euskadiko Gobernantza Publikoaren Hiritarren Eskola Ereduaren gida aur-
kezteko bileran ere hartu genuen parte maiatzean. Taldeka egindako dina-
mika bidez, ekarpenak jaso eta ekarpen berriak egiteko aldia irekitzen da.

Bestalde, OGP Euskadi Foro Irekian ere hartu genuen parte (uztailak 21-23). OGP Euskadiren 2018-2020 Planeko bost konpromisoak gauzatzeko lanak amaitzear daude eta hiritarrei irekitako foroetan aurkezpenak egin genituen konpromiso bakoitzean egindakoaren inguruan eta autoebalua-zio-prozesuaren elementu gisa. Auditoria-taldeak egindako elkarrizketetan parte hartu genuen.

Iraila eta urria bitartean, **OGP Euskadi II. Planerako** proposamenak hautatzeko panelak bildu genituen. Urrian, behin betiko proposamenak hautatzeko Foro Irekia egin genuen. Sareen Sareak hautaketarako proposamen bat aurkeztu zuen.

COVID-19: Larrialdi sozialaren aurreko erantzuna

Sareen Sareako presidenteak gutuna bidali dio Enplegua eta Gizarte Gaie-
tako sailburuari, Beatriz Artolazabali, osasun-larrialdiaren deklarazioarekin
lotutako testuinguruan. Bertan, egoera horri eta elkarren arteko lankidet-
zarako guneetan etorkizuneko ondorioei aurre egiteko Sareen Sarea Jaur-
laritzarekin eta Sailarekin batera lan egiteko prest dagoela adierazi zion.

Lide Amilibia, Gizarte Politiketako sailburuordea, Sareen Sarearekin jarri
zen harremanetan Cáritasekin eta Gurutze Gorriarekin batera abian jart-
zen ari ziren **elkartasun-sare antolatua** bideratzeko gure laguntza pre-
sazko izaerarekin eskatzeko. Ekimenaren liderra Osasun Saila da eta egoe-
ra ahulean dauden pertsonen beren etxeetan laguntza ematea da horren
helburua, bereziki bakarrik bizi badira edo familiaren babesik ez badute.
Atxikitako gidoia oinarri zuen dokumentua aberasteko, esku-hartzearekin
lotutako erakundeak (laguntzaile gisa parte hartu nahi duten eta kudeake-
tarako eta boluntariotzarako gaitasuna duten erakundeak) identifikatzeko
eta ekimena aktibatzeke gure laguntza eskatu zigun. Hilaren 16an, astele-
henean, e-maila bidali genien sareei. Egun hartan bertan hasi ginen lanki-
detzarako proposamenak jasotzen. Bizkaiko Psikologoaren Elkargoarekin ere
jarri ginen harremanetan.

Horri guztiari esker, **Guztion Artean** proiektua sortu zen.



KORONABIRUSAK
SORTUTAKO KRISIAREN AURREAN

GUZTION ARTEAN
ELKARTASUN SARE ANTOLATUA



Zure txakurra paseatzea nahi al duzu?

Zaborra jaitsi diezazuket?

Zer behar duzu? Hemen nago zuri laguntzeko

Joango al naiz farmazian zure botikeri bila?

Izapide atzerazain batean lagunduko dizut?

GUZTION ARTEAN ELKARTASUN sare ANTOLATUA da, Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailaren gidaritzapean, erakundeekin, Gurutze Gorriarekin, Caritasekin eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekin lankidetzan.

GUZTION ARTEAN

70 urtetik gorakoa bazara eta/edo mendekoa, sintomarik ez baduzu (sukarra edo arnas sintomak, bereziki eztul lehorra edo arnasa hartzeko zailtasuna), **familiaren laguntzarik ez baduzu eta laguntza behar baduzu:**

- Premia biziko hornidurak eskuratzeko (elikagaiak, higiene- eta garbiketa-produktuak eta premia biziko beste hornidura batzuk).
- Zaborra jaisteko.
- Osasun-txartel Indibidualean agindutako sendagaiak jasotzeko.
- Zure maskotaz arduratzeko (paseatzera atera, larrialdiko albaitari-arreta).
- Atzeratu ezin diren izapide eta kudeaketak egiteko.







Deitu 945 222 222 telefonora (24 ordu).

Krisi-egoerak irauten duen bitartean, eta, bereziki, etxean geratzeko gomendioak irauten duen bitartean, behar bezala laguntza emango

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Sareen Sarearekin jarri zen harremanetan martxoaren 18an **Covid-19ak eragindako larrialdi-testuingurua-ren barruan, batzorde mistoa edo lantaldea** presazko izaerarekin abian jartzeko gure laguntza eskatuz. Lantaldea bazterkeriako larrialdietan oinarrituta zegoen eta, bereziki, gizarte-bazterkeria larriko egoeretan.

EAPN, HIREKIN eta Harresiak Apurtuz bazterkeria-sareekin koordinatuta, hiru lurraldeetako lehen mailako zazpi erakunderekin eta Sareen Sareako koordinatzailearekin batera taldea osatu genuen. Jaurlaritzaren izenean, sailburuak, Gizarte Politiketako sailburuordeak, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak eta saileko aholkulari batek hartu zuten parte. Bilerak astero egin genituen pandemiaren lehen olatuan. 12 bilera egin genituen martxoaren 20a eta azaroaren 18a bitartean.

Hala, egindako beste proposamenen artean, COVID-19ak hartzaileei eta erakundeei (lurralde mailan zein esku-hartze esparruak kontuan hartuta) eragindako inpaktua ezagutzeko asmoz **EHSSko erakundeei zuzendutako galdetegi unitarioa** prestatzea dago. Sareen Sareak, HSSren Euskal Behatokiarekin eta Sailarekin batera hartu du parte galdetegia diseinatzeko, hedatzeko eta eztabaida-taldeak eratzen.



Galdetegiari dagokionez, lehen mailako ehun erakundek parte hartzea zegoen aurrez ikusita, eta 202 erantzun jaso ditugu. Eztabaida-taldeetan, hogeita hamar sare eta erakundek hartu dute parte. Prozesu horretatik eratorri zen **“Covid-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeetan. Lehen txostena - 2020ko apirila”** txostena.

Sareen Sareak, gizarte-bazterkeriako beste sare eta erakunde batzuekin batera, hiru lurraldeetan gizarte-bazterkeria larriko oinarritzko zerbitzuen artean **5.000 musukoren banaketa** koordinatu zuen.

Baina mugarri esanguratsuena Jaurlaritzaren eta sektore sozialaren artean batzordearen lanaren bidez egindako elkarlan-prozesua da. **“Inor atzean utzi gabe” izeneko 10 milioiko funtsa** eta bazterkeriako, pobrezia eta zaugarritasun bereziko egoeran dauden pertsona eta familien artean **COVID-19ak sortutako krisiaren inpaktu soziala eta ekonomikoa arintzeko 8 proiektu** sortu ditu horrek. Hirugarren sektore sozialeko erakundeek aurkeztutako proiektu horiek (esparru eta lurralde ugaritakoak) helburu hori duten elkarlanerako kontsorzioetan multzokatu dira.

Sareen Sareak 2020an gauzatu beharreko proiektuak aurkezteko prentsaurrekoan hartu zuen parte.

Batzorde mistoa urrian bildu zen haien jarraipena egiteko (pandemiaren bigarren olatuaren erdi-erdian). Balorazioa positiboa izan zen eta azaroan, beste hitzordu batean, 2021ean proiektuen finantzaketa eta gauzatzea luzatzeko akordioa adostu zuten.



2020ko hauteskunde autonomikoak

Martxoan, alderdi politikoek eta gizarteari zuzendutako proposamenen dekalogoak prestatu genuen Sareen Sarean 2020ko hauteskunde autonomikoekin lotuta: **“Sareen Sarearen dekalogoak. Eusko Legebiltzarrerako 2020ko hauteskundeak”**. COVID-19aren inpaktua dela eta, hauteskunde-deialdia uztailera atzeratu behar izan zuten. Ondorioz, testuinguru berria eguneratu ahal izateko, dekalogoak berrikusi behar izan genuen.

EHBilduk eta EAJk idatziz erantzun digute haien hauteskunde-programetan sartuko dutela. Equo-Berdeakeko Lehendakari bihurtzeko hautagaia Sareen Sareako koordinatzailearekin eta presidenteordearekin elkarriketatu da (2020/06/19).



Sareen sarea
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

PROPOSAMEN DEKALOGOA EUSKADIKO HAUTESKUNDEAK 2020



Sareen Sareak, Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeak, Osoigo parte-hartze digitaleko plataformak eta Hegoa Institutuak (EHU) **Interneten ekintza jarri zuten abian elkarrekin** Legebiltzarrean ordezkartza duten alderdietako Lehendakari bihurtzeko **hautagaiekin komunikaziorako kanala irekitzeko** uztailaren 12an egitekoak ziren hauteskundeekin lotuta. Osoigo atariaren bidez, hautagaiei galderak egin ahal izateko formulario erraz bat zegoen hiritarrentzat erabilgarri.

Ekainaren 24an, ETBko kazetari Xabier Madariagak moderatuta, hautagaiek hauteskunde-eztabaida digitalean parte hartu zuten planteatutako galderei erantzunez. Galdera eta erantzunak gai honekin lotutakoak ziren: **“COVID-19aren krisia dela eta inor atzean gera ez dadin Euskadik aurrean dituen erronkak, neurriak eta politika sozialak”**.

La solidaridad es la respuesta

Elkartasuna da erantzuna

Retos, medidas y políticas sociales desde Euskadi para que nadie quede atrás ante la crisis de la COVID-19

Alderdi politikoekin lehenengo debatea sarean

Elecciones Vascas **2020** Euskal Hauteskundeak

Primer debate digital con partidos políticos



Leixuri
Arrizabalaga Arruza
EAJ-PNV



Mikel
Otero Gabirondo
EH BILDU



Miren
Gorrotxategi Azurmendi
ELKARREKIN PODEMOS



Ekainak 24 de junio • 18:30-20:00

Sarrera librea / Acceso libre:

YouTube www.youtube.com/ONGDEuskadi



Gloria
Sánchez Marti
PSE-EE



Carmelo
Barrio Baroja
PP + CIUDADANOS



José Ramón
Becerra Carollo
EQUO BERDEAK



Moderatzailea / Modera:
Xabier Madariaga Idirin
Periodista de **EITBko** kazetaria

#ElkartasunaDaErantzuna #LaSolidaridadEsLaRespuesta

Antolatzaileak / Organizan:



Covid-19arekin lotuta jarduteko estrategia

Osasun-krisitik eratorritako krisi sozioekonomikoa, administrazio publikoek bildutako diruan izandako inpaktua, erakundeek hartzen dituzten neurriak eta sektoreko erakunde eta sareetan eragin serioa izan dezaketen eta kontuan hartu beharreko funtsezko beste faktore batzuk kontuan hartuta, EHSSko erakundeetan Covid-19ak izan duen inpaktuaren inguruan HSSEBk egindako txostenarekin lotuta, Sareen Sareako Zuzendaritza Batzordeak, ekainaren 17an, prestaketako jarduera-estrategia lantzea adostu zuen legealdian luza daitekeen eta epe horretan proposamen zehatzen bateria jasotzen duen krisi-egoeraren aurrean.

Zuzendaritza Batzordeak, irailaren 16an, **“Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialean COVID-19ak duen inpaktuaren aurrean”** dokumentua onartu zuen. Dokumentuak egoeraren diagnostikoa edo azterketa jasotzen duen lehen zatia planteatzen du, gero proposamenen bigarren zatira iristeko.

Komunikazio Batzordeak dokumentuarekin lotutako **Komunikazio Plana** prestatu zuen eta, bertan, **atxikipen-manifestua** prestatzea gehitu zuen dokumentuaren proposamen nagusietan oinarrituta. Gainera, eragile sozialek eta pertsona partikularrek proposamenekin bat egiteko aukera jasotzen zuen. Manifestua eta harekin bat egiteko webgunea abenduan egokitu zituzten, eta 2021eko urtarrilean hasiko da atxikitze kanpaina. 2020ko azaroan hasi zen **sare sozialean sentsibilizazio-kanpaina** eta 2021eko lehen hiruhilekora arte iraungo du.



**PANDEMIAREN AURKAKO
TXERTO SOZIALA GARA**

Gizarte-premiei erantzuten diegu eta pertsona zaugarrien alde lan egiten dugu.

**Ezinbestekoak gara.
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala gara.**

Sareen sarea
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Proposamenen aurkezpena

“Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialean COVID-19ak duen inpaktuaren aurrean” dokumentua Eusko Jaurlaritzara eta eratu berria zen Legebiltzarreko taldeei bidali genien horren berri izan eta, egokitze joz gero, eztabaida zezaten. **2020an, bilerak egin ditugu EAjko** (azaroaren 19an Jon Aiartza eta Aitor Urrutia legebiltzarkideekin) **eta EHBilduko** (Nerea Kortajarena legebiltzarkidearekin abenduan) **Legebiltzarreko taldeekin**. Bestalde, **bilera telematikoa egin genuen Eusko Jaurlaritzako Berdintasuneko, Justiziako eta Gizarte Politiketako sailburuarekin** azaroaren 24an.



Une horretara arte azaldutakoaz gain, 2020an **Jaurlaritzarekin eta Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten talde politikoekin bilerak eta harremanak** izan ditugu proposamenak aurkezteko, eztabaidatzeko eta arlo politikoan eragina izateko. Iragankortasun honetan jarduerarako, elkarri-zketarako eta intzidentziarako aukerak gutxitu dituzte honako hauek: CO-VIDaren inpaktuak eta, kasu honetan, eta batez ere, Legebiltzarra desegin-da zegoelako legebiltzarreko jarduera normalizaturik gabe urte erdia baino gehiago egon izanak, hauteskundeak eta Legebiltzarraren eraketa udabe-rritik udara atzeratu izanak eta Jaurlaritzaren eraketa eta haren sailen egi-turaketa udazkenara atzeratu izanak. Horrek guztiak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen (EEGAB) lanean ere izan du eragina.

Horrekin lotuta, honako hauen inguruan egin dugu lan batez ere:

- ⇒ **Kontzertu Sozialaren Dekretua:** izapidetzen ari diren dekretu-proiek-tuarekin lotutako alegazioen dokumentua aurkeztu dugu.
- ⇒ **OGP EUSKADIren 2018-2020ko Ekintza Plana.**
- ⇒ **EHSSko erakundeen errolda-dekretua.**
- ⇒ **Eusko Jaurlaritzaren IV. Inklusio Plana.**
- ⇒ **EHSSko Sustapen Estrategiaren 2018-2020 Legegintzako Plana.**

HSSko Euskal Behatokiaren aholkularitza-batzordea

Horrekin lotuta, azpimarratu beharrekoa da **Hirugarren Sektore Soziala-ren Euskal Behatokiaren aholkularitza-batzordea eratu** zela. Sareen Sa-reak bi ordezkari izango ditu bertan. Uztailaren 23an egin zen lehen bilera eta eratzeko helburua izan zuen. Horren aurretik, Eusko Jaurlaritzak oina-rrizko dokumentua bidali zion Sareen Sareako Zuzendaritza Batzordeari batzordeak arauak ezarrita izan zezan. Bertan, Sareen Sareak bi ordezkari izango ditu, Eusko Jaurlaritzak bezalaxe, eta bana aldundi bakoitzak eta EU-DELeK. Sareen Sarea ordezkatzuz, presidentea eta presidenteordea joango dira titular gisa. Koordinazioak egingo du ordezkaritza-lana dagokionean. Lehen bilerak izaera formala izan zuen eta bertan izan ziren foru-diputa-tuak eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordeak zuzendu zuen.

Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren aparteko bilera

Atal honetan, nabarmendu beharrekoa da **Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak aparteko saioa egin zuela maiatzaren 12an, EHSSren Egunean**, eta bertan izan zela **Lehendakaria**. Sareen Sareako koordinatzaileak Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren mende dagoen **COVID-19aren inpaktuarekin lotuta aktibatutako bazterkeria-batzordearen garapenaren** berri eman zuen alderdi sozialetik.



Apirilaren 1ean, Sareen Sareako presidentek **Lehendakariak Cáritas Bilbaori egin zion bisita ofizialean** hartu zuen parte (bisita birtuala izan zen osasun-larrialdia larriagotu egin zelako). Bertan izan ziren, gainera, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, Bilboko gotzaina, Cáritaseko zuzendaria eta erakundeko boluntario bat. Bisitaren helburua boluntariorzak eta EHHSk COVID-19ak eragindako krisian zehar egindako lanari balioa eta aitorpena ematea zen.

Gainera, Sareen Sareako presidentea Lehendakariarekin batera izan zen **Lantegi Batuakera egindako bisita ofizialean**. Era berean, bertan izan ziren Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, Lantegi Batuakera zuzendari nagusi eta EHLABEko presidentea, EHLABEko koordinatzailea, Enplegu eta Gazteriako sailburuordea, Gizarte Politiketako sailburuordea eta Lanbideko zuzendari nagusia. Bisitaren helburua koronabirusak eragindako behar berriei aurre egin ahal izateko enplegu-zentroek eta laneratzeko enpresek agertutako egokitzapen bizkorrari balioa ematea zen.

2.3. Harremanak eta aliantzak

2020an, beste sektore-plataforma batzuekin, gizarte-eragileekin eta unibertsitateekin dugun harremana sendotu dugu.

Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren 2009ko Entitateen Taula

Sektoreko beste plataforma batzuekin izandako harremanari dagokionez, Kataluniako **Taula d'Entitats-en kasuan, gonbidapena bidali genion ur-tarrilean Taulari Barometroaren aurkezpenean** parte har zezan erakunde horrek Katalunian izen bera duen tresna aurrera eramaten pilatu duen esperientzia zabala dela eta. Taulako zuzendaria eta gerentea etorri ziren eta, bide batez, aukera baliatu zuten Sareen Sarearekin biltzeko. Bertan, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiarekin, HSSren Legearekin eta intereseko beste gai batzuekin lotuta dugun esperientziari buruzko informazioa eskatu eta kontsultak egin zizkiguten.



Abenduaren 10ean, Sareen Sareako koordinatzaileak Taulak antolatutako **“Hirugarren sektoreko beste lege batzuen esperientzia ezagutzen. Hirugarren Sektore Sozialaren Legerantz Katalunian” jardunaldi tematikoko** mahai-inguruan hartu zuen parte. Sareen Sareako koordinatzaileak Euskadiko esperientziaren berri eman zuen Italiako eta Gaztela-Mantxako hizlariekin batera. 103 pertsona izan ziren bertan.

**CONEIXENT EXPERIÈNCIES
D'ALTRES LLEIS DEL TERCER SECTOR**

CAP A UNA LLEI DEL TERCER SECTOR SOCIAL A CATALUNYA

dijous, 10 de desembre [9:30 - 11:30h]
 Acte en línia mitjançant Zoom

AMB EL SUPORT DE:

Hirugarren Sektorearen Plataforma

Espainiako **Hirugarren Sektoreko Plataformari (HSP)** dagokionez, Alarma Egoeraren Deklaraziotik, Sareen Sareak HSPren Lurralde mailako Koordinazio Batzordean hartzen du parte. Bizi dugun mundu mailako krisia dela eta, ahaleginak koordinatzea eta larrialdi-egoera honi aurre egiteko informazioa, proposamenak eta esperientzia baliagarriak partekatzea komeni da. Sareen Sareak eta Kataluniako Taulak apiriletik daramagu foroan parte hartzen, baina ez gara plataformako kideak organikoki. Batzorde horretako kideak dira, besteak beste, HSPko presidentea eta plataforma autonomikoetako presidentetzak. Sareen Sareako koordinatzaileak Batzordearen 10 bilera telematikotan hartu du parte apirilaren 2tik. Positiboa da ekarpenen trukearekin lotuta egindako balorazioa.



HSSEBrekin Covid-19aren inpaktuari buruzko txostena aurkeztea

Sareen Sareako koordinatzaileak eta HSSren Euskal Behatokiko koordinatzaileak EHSSko erakundeetan **COVID-19aren inpaktuarekin lotuta prestatutako txostena** modu telematikoa aurkezteko asmoz Behatokiak antolatutako ekitaldian izan ziren ekainaren 12an. 40 pertsona izan ziren bertan.



Hizketan:
MIKEL BARTUREN
SAREEN SAREA

eta



LUCIA MERINOekin
HIRUGARREN
SEKTORE
SOZIALAREN
EUSKAL BEHATOKIA

ANTOLATZAILE
HIRUGARREN
SEKTORE
SOZIALAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

IKERKETA:
"COVID-19AREN ERAGINA
EUSKADIKO
HIRUGARREN SEKTORE
SOZIALEKO
ERAKUNDEETAN"

TOPAKETA BIRTUALA:
Eguna: ekainaren 5a
Ordua: 13:00etan
Nola: Zoom plataformaren
bidez, partekatzen dugun
estekan

REPS Kongresua

Nabarmendu beharrekoa da **Gizarte Politiken Espainiako Sarearen VIII. Kongresuko Batzorde Antolatzailean** parte hartzekoak garela. Kongresua 2021eko martxoan Bilbon egingo da pandemia dela eta atzeratu behar izan ondoren (2020tik uztailetik).

Antolatzaile gisa, Sareen Sareak ez ezik, Deustuko Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta SIISek ere hartu genuen parte. EHSS ordezkatzeko, Sareen Sareak bi ordezkari izan zituen.

Gizarte Politikarako Espainiako Sarearen Kongresuak gure erabateko balioaren proposamena eta balio erantsiaren proposamena hautatu ditu haren baitan aurkezteko.

REPS 2021 BILBO

VIII. KONGRESUA
GIZARTE POLITIKAREN ESPAINIAKO SAREA

ESPAÑOL KONTAK

BERRIAK ANTOLAMENDUA TOKIAK EGUTEGIA KONGRESUKIDEAK LAN SAIOAK

*Bizitza zaindu, inklusioa bermatu,
aniztasunean elkarbizi:
Kontsentsuak eta erronkak*

Berriak

Gizarte Politikaren Espainiako Sarearen VIII. Kongresua martxoan izango da Bilbon
1 urria, 2020

COVID-19aren epidemia dela-eta bertan behera geratu ondoren, Gizarte Politikaren Espainiako Sarearen VIII. Kongresua 2021eko

2020ko Eurokopa jokatu da ekainaren 15ean, 20an, 24an eta 28an Bilbon
26 urtarrila, 2020

2020ko Eurokopa jokatu da ekainaren 15ean, 20an, 24an eta 28an Bilbon. Hori dela eta, Gizarte Politikaren Espainiako Sarearen VIII.

Unibertsitateak

2020an Sareen Sarea zenbait aldiz aritu zen euskal unibertsitateekin elkar-lanean:

- ⇒ **EHUk eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako Gizarte Zerbitzuetako Kudeaketako eta Berrikuntzako graduondoa.** Bi modulu eskaini genituen 2020ko otsailean: bat teorikoa, eta bestea esperientzia praktikoen ingurukoa.
- ⇒ Sareen Sareako koordinatzaileak **Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoko Etikako eta Deontologiako Batzordeak** heziketa sozialaren eta komunikabideen inguruan antolatutako jardunaldian hartu zuen parte Bizkaia Aretoan, Bilbon, martxoaren 11n.
- ⇒ Sareen Sareako koordinatzaileak **Bilboko Hezkuntza Fakultateak (EHU) antolatutako Gizarte eta Hezkuntza Inklusiboari buruzko Nazioarteko II. Kongresuaren** amaierako hitzaldia eskaini zuen apirilaren 30ean.
- ⇒ Sareen Sareako koordinatzaileak Covid-19aren inpaktuarekin lotutako gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen erantzuna egokitzeari buruzko mahai-inguruan hartu zuen parte **Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoak, EHUk eta Deustuko Unibertsitateak Gizarte Heziketako Munduko Egunaren harira antolatutako jardunaldi telematikoan.**



- ⇒ **EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Instituta, Gezki**, Sareen Sarearekin harremanetan jarri zen hiru unibertsitateen (EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea) artean egiten ari den proiektuarekin (Neurtzen) lotuta. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Sozialeko Zuzendaritzak finantzatzen du eta ekonomia sozialeko elkarteetarako etorkizuneko erronkak eta ezaugarri bereziak identifikatzeko helburua du. Sareen Sareako koordinatzailea elkarriketatu zuten ekainaren 10ean.
- ⇒ **Soziologia eta Lan Sozialaren Saileko Parte Hartuz ikerketa-taldeak** herritarrek EAEko gizarte-zerbitzuetan duten parte-hartzeari buruzko ikerketa-lana prestatu zuen. Noemi Bergantiñosek, EHUko Lan Harremanetako eta Gizarte Laneko fakultateko irakasleak, Sareen Sareako koordinatzailea elkarriketatu zuen honen moduko sail batean parte hartzetik eratorritako aukerei eta zailtasunei buruzko iritziak eta izan dituen garapenak ezagutzeko asmoz.

CEBEK

Bestalde, beste eragile sozial batekin, kasu honetan enpresa arlokoarekin, lankidetzan izan genuen; Bizkaiko CEBEK enpresa-patronalarekin maiatzaren 8tik 26ra bitartean egin genuen. CEBEKeko proiektu berrien garapeneko zuzendaria, Nieves Gámiz, Sareen Sarearekin harremanetan jarri zen bere **kudeaketako arlo espezifikoaren inguruko aholkularitza** behar izan dezaketen Bizkaiko gizarte-erakundeekin harremana errazteko eta orientazioa jasotzeko asmoz: estrategia, finantzak, komunikazioa, funtsak jasotzea, marketina, giza baliabideak. Hala, erakundeei aditua den enpresa mailako langileek eskainitako boluntariotza-programa eskaini nahi zieten eta horren inguruko deialdia egin zuten.

Sareen Sareak **Pro Bono Birtualaren** deialdiaren berri eman zien, eta hamabost sare eta erakunde aurkeztu ziren. Esperotakoa baino kopuru handiagoa izan zen. Partekatutako beharra (funtsak jasotzea) zuten erakunde sozialen kopuru handia zela eta, CEBEKek Sareen Sareako koordinatzailearekin kontsulta egin eta ad hoc programa sortu zuen esparru horren inguruan sektoreak izan ditzakeen beharrei erantzunen bat emateko. CEBEKek eskerrak eman zizkion Sareen Sareari “aparteko harrera” eta “lankidetzarako gogoia” zirela eta.


2.4. EHSSren posizio soziala

Ezinbestekoa da **sektorearen sustapena eta aitorpena, eragin publikoa eta beste gizarte-talde batzuekin harreman estrategikoak**, kolaboraziozkoak eta aliantzazkoak eraikitzea Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala erreferentziazko gizarte-eragileen artean kokatzeko duen helburua betetzeko.

Gure mezua EAEko gizarteari zabaltzeko, **topaketa eta komunikazioa errazten duten hainbat tresna** erabiltzen ditugu: ekitaldi publikoak, komunikabideak, informazioaren eta komunikazioaren eta ikus-entzunezko euskarrien teknologiak.

2020an, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren posizionamenduari-kin, sustapenarekin eta gizartera irekitzearekin lotuta **mugarri esanguratsuak** egon dira. **Ezustean iritsitako mundu mailako pandemia eta alarma-egoeretatik eta osasun-larrialditik** eratorritako neurriak direla eta, plan eta aurreikuspen orokorrak aldatu egin dira eta, bistakoa den moduan, baita Sareen Sarearenak ere.

Beste aldaketa batzuk egiteaz gain, **elkartearen komunikatzeko modu eta bideak egokitu behar izan ditugu** (kanpora zein barrura begirakoak).



Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna | 1205

Pandemiaren eta alarma-egoeraren testuinguruan, eta **EHSSren eguna-1205en** laugarren edizioa ohiko formatuan egitea ezinezkoa zela eta, Sareen Sareak **ospakizuna eta hari lotutako kanpaina sare sozialetara bideratzea** erabaki zuen.

Bizi genituen eta EHSSko erakundeek arreta ematen zieten gorabehera zail haietan, maiatzaren 4tik 18ra bitartean, #125MilaEsker leloarekin kanpaina handia antolatu genuen "Boluntarioen eta profesionalen lanari balioa emateko eta lan hori ikusarazteko" helburu nagusiarekin.

Erronka birala jasotzen zuen kanpainak. Hau da, gizarteak EHSSko profesionali edo boluntarioei 125.000 aipamen eta esker on egitea. Kopuru hori EHSSko Liburu Zuriaren arabera sektoreak duen boluntario kopuruarekin bat dator. Milaka profesional eta boluntariok aparteko ahalegina egin dute egoera ahulenean dauden pertsonei laguntzeko. Gizartean bistaratu eta erronka elikatzeko asmoz, **Sareen Sareak 26 bideo ekoitzi eta argitaratu zituen: 2 iragarki, 2 bideo kinetiko eta boluntarioen eta profesionalen testigantzak jasotzen zituzten 22 pilula**. Egindako argitalpenez gain, bideo guztiak Youtubeko gure kanalean ere eskuragarri daude.

*Día del Tercer Sector Social de Euskadi
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna*

#125MilaEsker guztioi



#125MilaEsker traolak biralizazio-arrakasta handia izan du. **Traolaren irismena 1.265.000koa izan da.** Datuak nabarmen hobetu ditu EHSS ikusarazteko kanpainen ezarri genituen helburuak. Hain zuzen ere, traola tendentzia bihurtu zen iparraldean (Bilboko erreferentzia geografikoa). Ekitaldirik ez egin arren, kanpainari esker, 1205ek oihartzuna izan zuen komunikabideetan. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoak dira kanpainaren hasiera (hainbat elkarrizketa egin ziren irratietan), maiatzaren 12a eta hurrengo egunak.

Kanpainaren inpaktu-emaizak oso positiboak izan ziren. Gainera, gehitu beharrekoa da erakunde mailako ordezkariak (Lehendakariak berak), telebistako aurkezleak eta euskal gizartean oso ezagunak diren beste pertsona batzuek parte hartu zutela modu espontaneoan.



Sare Berri: buletin digitala

2020an, Sareen Sareak aurrera jarraitu zuen **komunikazio-tresna** honekin kanpoko eta barneko komunikazioa indartzeko. 2020. urtearen amaierarako, 11 newsletter bidali ziren eta informazio-aldizkariak 134 harpidedun zituen.



Sareen Sarea EITBn

Hala, lorpen esanguratsuak izan ziren **2019ko abenduan Eusko Jaurlaritzak eta EITB taldeak sinatutako hitzarmenaren** ondorioz bideratutako **8 komunikazio-kanpainak**. Helburu nagusia **EHSSk** gizarteari, eta esku-hartzearen hartzaile diren pertsoneri, familiei, taldeei eta komunitateei **egiten dien ekarpena, aniztasuna eta errealitatea ezagutaraztea** eta ikusgai jartzea da.

Hitzarmenak ETBren kanaletan 2020an 8 iragarki eta 2021ean beste 8, eta komunikazioko euskal taldearen irrati-kateetan irrati bidezko iragarkiak eskaintzea jasotzen du. Sareen Sarea arduratu da iragarkiak ekoizteaz eta Jaurlaritzaren laguntza jaso du finantzatzeko.

Zortzi iragarki eskaintzeko ekintza horiek aprobe txatu ditu Sareen Sareak sinergiak bateratu, inpaktua handitu eta EITBko emanaldiak sendotzeko kanpaina bakoitzeko bideoak Sare Berri buletinean eta sare sozialetan hedatuta.



Radio Popularrekin kolaborazio-hitzarmena

2020an Radio Popularren «**Es posible**» programan parte hartzen jarraitu zuen Sareen Sareak; hari atxikitako sare eta entitate gehienek parte hartu zuten bertan. Juanma Jubera kazetariak zuzendutako programa honetan entitateek beren errealitatearen, egiten duten lanaren, dituzten proiektu berrien edota ekitaldi puntualen berri emateko aukera izan dute.



Parte hartu dugun beste jarduera batzuk

-  **Intermon Oxfameko iparraldeko lurralde eremuko ordezkariarekin bilera:** Sareen Sareako koordinatzailearekin elkarrizketa eskatu zuten Programa España izeneko gogoeta-prozesurako eragile ugarirekin egiten ari diren harremanen baitan.
-  **Bilera Bilbon Fiareko zuzendariarekin** Sareen Sarearen eta Fiareren arteko hitzarmenaren jarraipena egiteko.
-  **Sarreraren Bermearen eta Gizarteratzeko sistema sendotzeko manifestuarekiko atxikipena:** EAPN Euskadik hala eskatuta, Sareen Sareak bat egin zuen sare horren eta Euskadiko Hirugarren Sektoreko kolektiboen, mugimendu sozialen, sindikatuen, gizarte-erakundeen, plataformen et sareen artean adostutako manifestuarekin. Aipatutako elkarteak Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Lege Proposamenarekin lotuta Eusko Legebiltzarreko Enplegua, Gizarte Politikak eta Gazteria Batzordean parte hartu zutenak dira.
-  **Bizitzeko Gutxieneko Errentaren aldeko EAPN-Espainiaren manifestuarekin bat egin genuen:** Hirugarren Sektoreko Plataformarekin eta Kataluniako erakundeen Taularekin hala adostuta, Estatu mailan Bizitzeko Gutxieneko Errentaren aldeko EAPN-Espainiaren kanpainako manifestuarekin bat egin genuen.

Zer komunikatu dugu?

Agerraldiak komunikabideetan

2020an Sareen Sareak komunikabideetan egindako 50 agerraldi zenbatu ditugu. **Hautaketa honek bost garrantzitsuenetakoak jasotzen ditu:**

- ➡ **Deia:** *[“El lehendakari destaca la labor de las organizaciones sociales durante la crisis”.](#)*
- ➡ **El Correo:** *[“Hagamos que pase. Que nadie se quede atrás”.](#)*
- ➡ **El Diario Vasco:** *[“El tercer sector pide al Gobierno Vasco una reconstrucción social «en la que nadie se quede atrás”.](#)*
- ➡ **Berria:** *[“Hirugarren sektoreko eragileek baliabideak eskatu dizkiete instituzioei”.](#)*
- ➡ **Radio Popular:** *[“Euskal Gorrak se incorpora a Sareen Sarea”.](#)*



Sareen Sarea sare sozialetan

Sareen Sareak webgune bat, buletin digital bat eta hainbat sare sozialetan profilak ditu. Jarraian, gure gizarte-sareetan izan dugun eraginari buruzko daturik garrantzitsuenak azaltzen dira.



490 txio | 645.700 inpresio | 11.977 interakzio
338 jarraitzaile berri




311 post | 159.643 pertsonako irismena
263 jarraitzaile berri



46 bideo eta 2.175 bistaratze



51 albiste eta 25.465 bisita



Kontuak argi

2020ko DIRU SARRERAK

Bazkideen eta afiliatuen kuotak	15.000,00
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	187.285,71
Bestelako diru-sarrerak	2.295,88

2020ko DIRU-SARRERAK GUZTIRA: 204.581,59

2020ko GASTUAK

Errentamenduak eta kanonak	23.345,70
Konponketak eta mantenimendua	2.875,85
Zerbitzu profesionalak	10.436,61
Aseguruetako primak	246,66
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	118,26
Publizitatea, propaganda eta HHPP	44.783,79
Hornidurak	2.589,82
Beste zerbitzu batzuk	6.062,70
Beste zerga batzuk	0,00
Langileen gastuak	92.184,82
Beste kudeaketa gastu batzuk	369,76
Finantza-gastuak	293,04
Ibilgetu materialaren amortizazioa	9.520,99

2020ko GASTUAK GUZTIRA: 192.828,00



Sareen sarea

**Euskadiko Hirugarren
Sektore Soziala**

**Tercer Sector Social
de Euskadi**

www.sareensarea.eus